

Donostia, 2025eko azaroaren 20a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, GROS AUZOKO ZABALTZA ERRETIRATUEN ETXEA IXTEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotzi Arantza González García eta EH Bildu udal-taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dute. Azaroaren 17an, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN, Gizarte Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Idoeta andreari Groseko Zabaltza erretiratuen etxea ixteari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio da kontrol-mozio hau.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuenez, Gros auzoko Zabaltza erretiratuen elkarteak Udalaren jakinarazpen bat jaso du, eta horren bidez jakinarazi zaio udal-lokala itxi egingo dela. Lokal horretan 43 urte daramatza etengabe jarduerak egiten. Espazio horretan, egiten dituzten jarduez gain, Gros auzoko adineko pertsona askorentzat, elkartzeko eta lagunartean egoteko lekua ere bada. Izan ere, Groseko populazioaren % 31,8 65 urtetik gorakoa da; hiriko zahartuena, alegia.

Jakinarazi digutenez, Udalak lekualdaketarako eskaini duen alternatibak ez ditu beharrezko baldintzak betetzen orain egiten duten lanarekin jarraitu ahal izateko; horrek esan nahi du jarduera asko egiteari utzi beharko diotela, eta egun lokala erabiltzen duten pertsona askok hori erabiltzeari utziko diotela, horrek izan ditzakeen ondorioekin, hain zuzen ere bakardade-egoerak edo bestelakoak saihesteko. Udalak eskaini dien lokalak ez du taberna-zerbitzurik izango, eta adineko pertsonak taberna hori erabiltzen dute askotan, etxean otordurik prestatu behar ez izateko.

ordezkariak adierazi zuen proposatutako lokala behin-behinekoa dela, behin betikoa den beste lokal bat aurkitu arte erabiliko dela, baina ezin duela konpromisorik hartu epe zehatzik ezartzeko. Gainera, jakinarazi zuen bere zuzendaritzak, gutxienez bi urtez, ez duela inbertsioak egiteko aurrekonturik izango, Erdialde erretiratuen etxea berrituko baita.

Horrek guztiak ziurgabetasun handia sortzen du orain Grosen erretiratuen etxeaz gozaten duten pertsonen artean; izan ere, jakinarazi digutenaren arabera, oso zaila izango da udal-gobernuak eskaini dien lokalean gaur egun egiten dituzten jarduerak kudeatzea.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio lehenbailehen bilatu dezala Zabaltza erretiratuen etxeak egun duen egoitzaren ordezkoko kokaleku bat, elkarte horrek gaur egun egiten dituzten jarduera guzti-guztiak, kafetegi-jatetxearena ere bai– bertan egiten jarraitu ahal izateko.
2. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio konpromisoa har dezala 2026an behin betiko irtenbidea emateko Gros auzoko Zabaltza erretiratuen etxeari.
3. Era berean, gobernu-taldeari eskatzen zaio Zabaltza elkartearen Zuzendaritza Batzordeari unean-unean eman diezaiola horri buruz egiten diren kudeaketa eta urratsen berri.